# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 5598

*EBAZPENA, 2021eko urriaren 19koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita IVAPek antolatutako ikastaroen balorazioa, Estaturako gaikuntza duten toki- administrazioko funtzionarioen lehiaketen baremo orokorrean sartzeko.*

### AURREKARIAK

Lehenengoa.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen araubide juridikoari buruzko 16/1983 Legeak xedatutakoarekin bat, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen dituen maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak bi xede hauek ezartzen dizkio IVAPi, besteak beste: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoekiko lankidetzan aritzea hango langileak prestatzeko eta, bestetik, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko langileak hautatzea eta prestatzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

Esleituriko xedeak betetzeko, IVAPek zenbait prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaro antolatu eta garatzen ditu.

Bigarrena.– Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren IV. kapituluan dago aurreikusita eskala horretan hutsik dauden lanpostuak merezimenduen lehiaketaren bidez betetzea. Lehiaketa horretan, gainditutako edo emandako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaro homologatuak edo aitortuak baloratuko dira Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak zehaztutako baldintzetan.

Hirugarrena.– IVAPek 2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean antolatu zituen ikastaroen balorazioa zehaztu zuen, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen hautapen- eta betetze-prozesu horien baremo orokorrean jaso ahal izateko. Balorazio hori jakinarazten da ebazpen honen bidez, jende guztia jakitun egon dadin.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen araubide juridikoa arautzen duen 16/1983 Legeak IVAPen xedeen artean hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionarioen eta lan-kontratatuen prestakuntza eta hobekuntza, baita beste edozein administrazio publikok edo ordenamendu juridikoak haren gomendio uzten duena ere.

Bigarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen dituen maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak IVAPi ezartzen dio xede, besteak beste, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko langileak hautatu eta prestatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko langileak prestatzea eta EAEko gainerako administrazio publikoekin lankidetzan aritzea hango langileak prestatzeko.

Hirugarrena.– Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 32.1 artikuluan dago aurreikusita prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak baloratzea eskalari dagozkion hautapen- eta betetze-prozesuetan.

Laugarrena.– otsailaren 16ko TFP/153/2021 Aginduak Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen merezimendu orokorren balorazioa arautzen du, eta, 2.5 a artikuluan, hau ezartzen du: gainditutako edo emandako ikastaroak aintzatesteko eta baloratzeko irizpideak INAP – Administrazio Publikoaren Institutu Nazionalak ezarriko ditu, autonomia-erkidegoekin eta, hala badagokio, prestakuntza-zentroekin bat etorriz. Kontuan hartuko dira ikastaroaren gaiaren eta Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalarako erreserbatutako eginkizunen arteko erlazioa, zailtasun-maila, irakastordu kopurua eta ebaluazio-sistema.

Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– IVAPek 2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean antolatutako ikastaroen balorazioa jakinaraztea, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen lehiaketen baremo orokorrean sartzeko. Balorazio hori ebazpen honen eranskinean dago.

Ebazpen honek honako ebazpen hauek osatzen ditu:

– 2021eko otsailaren 8ko Ebazpena (2021-02-26ko EHAA, 42. zk.).

– 2020ko urriaren 22ko Ebazpena (2020-10-28ko EHAA, 213. zk.).

– 2020ko apirilaren 21eko Ebazpena (2020-04-30eko EHAA, 81. zk.).

– 2019ko otsailaren 11ko Ebazpena (2019-02-19ko EHAA, 35. zk.).

– 2018ko irailaren 12ko Ebazpena (2018-09-21eko EHAA, 183. zk.).

– 2018ko martxoaren 15eko Ebazpena (2018-03-21eko EHAA, 57. zk.).

– 2018ko urriaren 4ko Ebazpena (2017-10-10eko EHAA, 194. zk.).

– 2017ko otsailaren 16ko Ebazpena (2017-02-28ko EHAA, 41. zk.).

– 2016ko irailaren 19ko Ebazpena (2016-10-21eko EHAA, 200. zk.).

– 2016ko martxoaren 11ko Ebazpena (2016-03-22ko EHAA, 56. zk.).

– 2015eko urriaren 21eko Ebazpena (2015-10-28ko EHAA, 205. zk.).

– 2014ko urriaren 28ko Ebazpena (2014-12-11ko EHAA, 236. zk.).

– 2013ko irailaren 19ko Ebazpena (2013-10-03ko EHAA, 189. zk.).

– 2013ko apirilaren 25eko Ebazpena (2013-05-13ko EHAA, 90. zk.).

– 2013ko martxoaren 25eko Ebazpena (2013-04-19ko EHAA, 75. zk.).

– 2013ko martxoaren 1eko Ebazpena (2013-03-15eko EHAA, 53. zk.).

– 2011ko irailaren 19ko Ebazpena (2011-10-11ko EHAA, 194. zk.).

– 2011ko otsailaren 11ko Ebazpena (2011-03-09ko EHAA, 47. zk.).

– 2010eko uztailaren 8ko Ebazpena (2010-08-02ko EHAA, 147. zk.).

– 2010eko urtarrilaren 28ko Ebazpena (2010-02-18ko EHAA, 33. zk.).

– 2009ko uztailaren 10eko Ebazpena (2009-07-28ko EHAA, 143. zk.).

– 2009ko urtarrilaren 15eko Ebazpena (2009-02-02ko EHAA, 22. zk.).

– 2008ko uztailaren 15eko Ebazpena (2008-08-06ko EHAA, 148. zk.).

– 2007ko urriaren 10eko Ebazpena (2007-11-05eko EHAA, 212. zk.).

Ebazpen horiek guztiek indarrean jarraituko dute.

ERREKURTSOAK

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendari nagusiaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezartzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 121. artikuluan. Errekurtsoari ez bazaio esanbidezko ebazpenik ematen, ezetsitzat joko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 19a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendaria,
EGOITZ LABURU RODRIGUEZ.

ERANSKINA

| Zk. | Data | Ikastaroa | Puntuazioa |
|---|---|---|---|
| 1 | 15-02-2021 | 20 aholku hizkera juridiko-administratiboa hobetzeko | 0,4 |
| 2 | 15-02-2021 | 20 aholku hizkera juridiko-administratiboa hobetzeko | 0,4 |
| 3 | 01-06-2021 | 2030 agenda eta garapen jasangarriko helburuak: gure politika publikoak hobetzeko tresna | 0,3 |
| 4 | 24-05-2021 | Abusos sexuales a niñas, niños y adolescentes: curso básico | 0,4 |
| 5 | 25-05-2021 | Acoso moral y mediación | 0,3 |
| 6 | 03-05-2021 | Administrazioan komunikazioa erraztu | 0,3 |
| 7 | 01-03-2021 | Administrazioan komunikazioa erraztu | 0,3 |
| 8 | 03-05-2021 | Administrazio-egintzaren ezaugarri orokorrak 39/2015 legean | 0,5 |
| 9 | 10-05-2021 | Ahozko jarduna nola hobetu azterketetatik harantzago | 0,3 |
| 10 | 09-03-2021 | Aplicación de servicios | 0,4 |
| 11 | 18-05-2021 | Aurrez aurreko eta telefono bidezko harrera, oharrak eta mezu elektronikoak | 0,3 |
| 12 | 16-03-2021 | Aurrez aurreko eta telefono bidezko harrera, oharrak eta mezu elektronikoak | 0,3 |
| 13 | 16-03-2021 | Aurrez aurreko eta telefono bidezko harrera, oharrak eta mezu elektronikoak | 0,3 |
| 14 | 01-03-2021 | Bilera-akta, iragarkia eta txostena | 0,5 |
| 15 | 01-06-2021 | Bilera-deia, eskabidea eta ziurtagiria | 0,5 |
| 16 | 01-06-2021 | Bilera-deia, eskabidea eta ziurtagiria | 0,5 |
| 17 | 07-06-2021 | Buenas prácticas para la eficacia de procesos selectivos | 0,4 |
| 18 | 03-05-2021 | Características generales del acto administrativo en la Ley 39/2015 | 0,5 |
| 19 | 06-04-2021 | Claves en administración electrónica | 0,5 |
| 20 | 03-05-2021 | Claves en administración electrónica | 0,5 |
| 21 | 01-03-2021 | Claves en administración electrónica | 0,5 |
| 22 | 09-02-2021 | Claves para afrontar la atención a la ciudadanía en tiempos COVID | 0,3 |
| 23 | 06-04-2021 | Cómo escribir para la web | 0,3 |
| 24 | 13-05-2021 | Comunicación inteligente: asertividad y gestión emocional | 0,3 |
| 25 | 07-06-2021 | COVID garaian herritarrekiko arretari aurre egiteko gakoak | 0,3 |
| 26 | 22-02-2021 | Covid garaian herritarrekiko arretari aurre egiteko gakoak | 0,3 |
| 27 | 01-06-2021 | Cuestiones prácticas en la contratación pública. Especialización | 0,6 |
| 28 | 01-03-2021 | Culturas organizativas que transforman: cuando el aprendizaje, las ideas y el conocimiento se alían | 0,3 |
| 29 | 03-05-2021 | Curso básico de urbanismo en la CAPV | 0,6 |

| Zk. | Data | Ikastaroa | Puntuazioa |
|---|---|---|---|
| 30 | 09-03-2021 | Curso de IRPF 2020 para informadores/as de campaña de renta | 0,3 |
| 31 | 04-05-2021 | Curso específico para referentes de protección de datos de la administración general de la CAE | 0,5 |
| 32 | 06-04-2021 | Datuak babesteko erreglamendu orokorra | 0,6 |
| 33 | 01-03-2021 | Egintzaren araubide juridikoari eta administrazio prozedurari buruzko oinarrizko azterketa | 0,5 |
| 34 | 01-02-2021 | Ejecución y extinción de los contratos | 0,5 |
| 35 | 15-03-2021 | Emakumeen eta gizonen berdintasuna proiektuetan | 0,4 |
| 36 | 24-05-2021 | Emakumeen kontrako indarkeria: oinarrizko ikastaroa | 0,4 |
| 37 | 01-02-2021 | Estudio básico del régimen jurídico del acto y procedimiento administrativo | 0,5 |
| 38 | 03-05-2021 | Euskaltzaindiaren arauak | 0,3 |
| 39 | 01-02-2021 | Euskaltzaindiaren arauak | 0,3 |
| 40 | 03-05-2021 | Euskaltzaindiaren arauak | 0,3 |
| 41 | 10-05-2021 | Euskara ingurune digitalean | 0,3 |
| 42 | 02-03-2021 | Euskara ingurune digitalean | 0,3 |
| 43 | 01-03-2021 | Formación básica sobre igualdad de mujeres y hombres | 0,3 |
| 44 | 12-04-2021 | Genero-indarkeriari buruz jakin behar duzuna | 0,3 |
| 45 | 06-04-2021 | Gutuna eta ofizioa | 0,3 |
| 46 | 17-03-2021 | Hacienda local. Especial referencia al urbanismo. (bideokonferentzia) | 0,5 |
| 47 | 15-03-2021 | Haurren eta nerabeen kontrako sexu abusuak: oinarrizko ikastaroa | 0,4 |
| 48 | 01-02-2021 | Herritarrei arreta. Komunikazio erlazionalaren garapena | 0,3 |
| 49 | 08-02-2021 | Herritarrei arreta. Komunikazio erlazionalaren garapena | 0,3 |
| 50 | 15-03-2021 | Hezkidetza: indarkeriaren prebentziorako eta esku-hartzeko oinarriak | 0,9 |
| 51 | 19-05-2021 | Hirigintza ikastaroa | 0,5 |
| 52 | 06-04-2021 | Hizkera juridikoa | 0,5 |
| 53 | 03-05-2021 | Hizkuntza inklusiboa | 0,3 |
| 54 | 01-03-2021 | Hizkuntza inklusiboa | 0,3 |
| 55 | 30-04-2021 | Implantación de las 5s físicas en la administración | 0,3 |
| 56 | 03-06-2021 | Inteligencia emocional | 0,3 |
| 57 | 11-03-2021 | Inteligencia emocional | 0,3 |
| 58 | 24-05-2021 | Inteligencia emocional. Profundización | 0,3 |
| 59 | 12-04-2021 | Interoperabilidad en la administración electrónica | 0,5 |
| 60 | 09-03-2021 | Jendaurrean efikaziaz hitz egitea | 0,3 |
| 61 | 04-03-2021 | Jendaurrean efikaziaz hitz egitea | 0,3 |

| Zk. | Data | Ikastaroa | Puntuazioa |
|---|---|---|---|
| 62 | 06-04-2021 | La agenda 2030 y los objetivos de desarrollo sostenible: una herramienta para mejorar nuestras políticas públicas | 0,3 |
| 63 | 01-06-2021 | La información estadística. Características, modos de consulta y usos para el trabajo en la administración pública | 0,3 |
| 64 | 19-04-2021 | La mediación: análisis y estrategias colaborativas de gestión de conflictos (Nivel I) | 0,3 |
| 65 | 08-03-2021 | Lan-taldeak egungo testuinguruan | 0,3 |
| 66 | 01-02-2021 | Lenguaje inclusivo | 0,3 |
| 67 | 06-04-2021 | Lenguaje inclusivo | 0,3 |
| 68 | 01-02-2021 | Lenguaje inclusivo | 0,3 |
| 69 | 06-04-2021 | Lenguaje inclusivo | 0,3 |
| 70 | 03-05-2021 | Ley 39/2015 de procedimiento administrativo común en las administraciones públicas | 0,6 |
| 71 | 03-05-2021 | Ley 39/2015 de procedimiento administrativo común en las administraciones públicas | 0,6 |
| 72 | 06-04-2021 | Ley 9/2017, de 8 de noviembre de contratos del sector público | 0,6 |
| 73 | 03-05-2021 | Liderar en momentos de incertidumbre | 0,6 |
| 74 | 03-05-2021 | Lo que tienes que saber de la violencia de género | 0,3 |
| 75 | 27-05-2021 | Los equipos de trabajo en el contexto actual | 0,3 |
| 76 | 12-04-2021 | Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak | 0,4 |
| 77 | 01-03-2021 | Mezu elektroniko egokiak idatzi | 0,3 |
| 78 | 01-03-2021 | Mezu elektroniko egokiak idatzi | 0,3 |
| 79 | 23-04-2021 | Mindfulness | 0,3 |
| 80 | 16-04-2021 | Mindfulness | 0,4 |
| 81 | 03-05-2021 | Modalidades de contratos del sector público | 0,5 |
| 82 | 11-05-2021 | Modelado básico de BIM en proyectos de edificación con REVIT | 0,3 |
| 83 | 19-05-2021 | Modelado básico de BIM en proyectos de edificación con REVIT | 0,3 |
| 84 | 06-04-2021 | Módulo I: las subvenciones concedidas por entidades públicas: visión general | 0,5 |
| 85 | 01-06-2021 | Módulo II: las subvenciones concedidas por entidades públicas: justificación, comprobación y reintegros | 0,5 |
| 86 | 11-01-2021 | Módulo III. Ordenación y planeamiento urbanístico del XLVI. (46) curso de urbanismo y estudios territoriales (2020-2021).Donostia / San Sebastián. | 1,6 |
| 87 | 13-01-2021 | Módulo IV. Ejecución de la ordenación urbanística (gestión urbanística) del XLVI (46) curso de urbanismo y estudios territoriales (2020-2021). Bilbao | 1,8 |

| Zk. | Data | Ikastaroa | Puntuazioa |
|---|---|---|---|
| 88 | 24-02-2021 | Módulo IV. Ejecución de la ordenación urbanística (gestión urbanística) del XLVI (46) curso de urbanismo y estudios territoriales (2020-2021). Donostia / San Sebastián | 1,8 |
| 89 | 21-04-2021 | Módulo V. Garantía y protección de la ordenación urbanística (disciplina urbanística) del XLVI (46) curso de urbanismo y estudios territoriales (2020-2021) | 1,5 |
| 90 | 03-05-2021 | Módulo V. Garantía y protección de la ordenación urbanística (disciplina urbanística) del XLVI (46) curso de urbanismo y estudios territoriales (2020-2021) | 1,5 |
| 91 | 27-05-2021 | Modulo VI. Proyecto de ejercicio profesional del XLVI (46) curso de urbanismo y estudios territoriales (2020-2021) | 1,2 |
| 92 | 07-06-2021 | Novedades en la legislación sobre contratos del sector público | 0,5 |
| 93 | 01-02-2021 | Nuevos enfoques de los tiempos: la corresponsabilidad y la conciliación | 0,3 |
| 94 | 10-05-2021 | Orientación y empleabilidad en entornos virtuales | 0,3 |
| 95 | 05-02-2021 | Plan piloto de formación en liderazgo de proyectos en la administración pública local | 1,1 |
| 96 | 05-02-2021 | Plan piloto de formación en liderazgo de proyectos en la administración pública local | 1,1 |
| 97 | 12-04-2021 | Preparación y adjudicación de los contratos | 0,5 |
| 98 | 01-06-2021 | Procedimiento administrativo común en la Ley 39/2015 | 0,5 |
| 99 | 01-06-2021 | Procedimiento administrativo sancionador en la Ley 39/2015 | 0,5 |
| 100 | 04-02-2021 | Propuestas para la mejora del lenguaje administrativo | 0,5 |
| 101 | 06-05-2021 | Propuestas para la mejora del lenguaje administrativo | 0,5 |
| 102 | 10-03-2021 | Responsable del contrato y servicios promotores de la contratación: funciones y herramientas en pliegos y ejecución | 0,6 |
| 103 | 12-04-2021 | Taller para la implementación y desarrollo de los procedimientos de selección | 0,3 |
| 104 | 13-04-2021 | Taller para la implementación y desarrollo de los procedimientos de selección | 0,3 |
| 105 | 01-03-2021 | Testu argiak euskaraz: hitz-ordena eta puntuazioa | 0,3 |
| 106 | 12-04-2021 | Toki erakundeetako idazkari-kontuhartzaileen lan-poltsak osatzeko prestakuntza ikastaroa | 0,9 |
| 107 | 15-03-2021 | Violencia contra las mujeres: curso básico | 0,4 |